


AHOLKULARITZA

Etxejabe elkarte batean igogailuak berri nahi dituzte, baina bizilagun batzuk aurka daude



Gu bizi garen eraikinean lau igogailu daude, bi eskailera bakoitzean, baina horietako bi erabiltzeari utzi genion orain dela bost urte, gastu

handia zen-eta guretzat. Orain berriz erabiltzen hasi nahi dugu, eta berri nahi ditugu. Etxejabe elkarteak 40 bizilagunek osatzen dugu, eta horietako bi aurka daude. **Igogailu zaharrak konponduko bagenitu, haiek ere ordaindu behar lukete?**

Igogailu zerbitzuak abian jartzeko edo kendu ahal izateko, bost etxejabetatik hiruk egon behar dute ados, eta, aldi berean, parte-hartze kuota ordaintzen dituzten artean ere portzentaje bera osatu behar dute, bostetik hirukoa. Jabego Horizontalaren Legearen arabera, zerbait adosten denean, bizilagun guztiak ordaindu behar dute, nahiz eta kontrako botoa eman. Bere garaian igogailu zerbitzua kendu bazenuten eta orain berriz abian jarri nahi baduzue, bost bizilagunetatik hiruk egon behar dute ados.

Zerbitzu hori berriz abian jartzeko orduan, izan dadin igogailu zaharrak konponduta edo izan dadin berriak jarrita, enpresak ematen dituen irizpide teknikoak eta aholkuak aintzat hartzea komeni da eta norbere erkidegoko Industria Sailak edo Espainiako Industria Ministerioak esaten dutena ere bai. Zaharra berritzea esaten denean, ez du esan nahi akatsak zuzendu edo konponduko diren soilik; horrez gain, esan nahi du zerbitzuak funtziona dezan eta egoera onean jarrai dezan beharrezko diren moldaketa eta ordezkapen teknikoak eratzeko auziari, eta dagokion Industria erakundeak ezartzen dituenak ere bai, haren ardura baita erabiltzaileen segurtasuna bermatzea. Beraz, igogailu matxuratuak konpontzea erabakitzen baduzue, etxejabe guztiak ordaindu beharko dute, eta zaharren lekuan berriak jartzea erabakitzen baduzue ere bai (gerta daiteke ikuspuntu teknikotik aztertuta, ez izatea beharrezkoa berriak jartzea, eta zaharrek ere aski berme ematea ongi irauteko eta funtzionatzeko). //

Hilurrenoko gaixotasuna dauka, eta familia beldur da Estatuak jasoko ote duen haren ondarea, ez baitu egin testamenturik



Gure senitarteko batek gaixotasun degeneratiboa du, oso aurreratu; ez du testamenturik egin, baina notario-ahalorde bat sinatu

dio beste senitarteko bati. Estatuak egingo da haren ondarearen jabe hiltzen denean?

Pertsona batek testamentua egin ez badu ere, Estatuak ez du zertan egin haren ondasunen jabe. Gaixoak ez duenez esan zein diren haren oinordekoak, legeak egingo du hori, ahaidetasun-harremanaren arabera, betiere. Guztiak lurralde berean bizi zaretenez, Kode Zibilaren arauak ezarriko dute ondorengotasun-hurrenkera hori. Notario-ahalordeak ezin du senitarteko horren izenean testamentua egin.

Pertsona hori testamentua egin gabe hilko balitz, haren senitartekoek jasoko lukete ondarea, honako hurrenkera: lehenik seme-alabek, guztiak kopuru bera. Ezkondata bazegoen, ondarearen herena dagokio ezkonlagunari. Seme-alabarik ez balu, bilobek. Halakorik ez balu, gurasoek edo aurreko ahaideek. Gurasorik ez balu eta aurreko ahaiderik ere ez, alar-gunarentzat guztia. Gurasoak eta ezkonlaguna hilak egongo balira, haren anai-arrebak eta ilobentzat. Halakorik ez balu, osaba-izebentzat, eta horiek hilda badaude, lehengusu-lehengusina propioentzat. Beraz, pertsona hori testamentua egin gabe hilda ere, laugarren maila bitarteko alboko ahaideren bat bizi badu, Estatuak ez du deus jasoko.

Inork ezin du testamenturik egin senitarteko baten izenean, baina berak egin lezake, baldin eta horretarako gai bada, notario aurrean. Testamenturik egin gabe hilko balitz, urrats batzuk egitea komeni litzateke hutsune hori betetzeko. Oinordekoak ondorengo ahaideak badira, aurreko ahaideak edo ezkonlaguna, oinordeko-adierazpena sinatu behar da notario aurrean; oinordekoak anai-arrebak, anai-arreben seme-alabak edo maila txikiagoko ahaideak badira, epaile aurrera joan beharko dute oinordeko-adierazpena egitera. Dena dela, komeni izaten da xehetasun guztiak abokatu batekin aztertzea. //

info@consumer.es

Idatzi eta zure arazoa konpontzeko bide egokiena zein izan daitekeen aholkatuko dizugu

Auzia aztertu ondoren, CONSUMER EROSKIren zerbitzu juridikoek esango dizute zure kasuan jarduera egokiena zein izan litekeen. Orientabidea baino ez da. Kasu bakoitzaren ezaugarriek sententzian eragina izan dezakete.

Bidali arazoa azaltzen duen gutuna. Eta berarekin batera auziaren inguruko dokumentazioaren fotokopiak. Eskura dituzunak. Orrialdeotan argitaratzen duguna izango da auziari emango zaion erantzun bakarra.

CONSUMER EROSKI aldizkaria San Agustin auzoa z/g 48230 Elorrio (Bizkaia)

epaiaiek



BERMEA

Kontratua ez betetzea: matxura konpontzeko eskubidea, bermearen epea igarota ere

Auto-saltegia salatu du, auto berriari motorra hondatu zaiolako hiru urteren ostean

Gidari batek salaketa jarri zuen autoa saldu zion saltegiaren aurka, erosi eta hiru urtera motorren blokea hondatu zitzaiolako biela bat apurtu ostean. 3.205 euro kosta zitzaion matxura konpontzea. Legezko bermearen epea agortuta zegoen, baina Castelloko Probintzia Auzitegiak erabaki zuenez (2009ko otsailaren 10ekoa da epaia), saltzaileak ez zuen bete kontratua eta matxura ordaintzera behartu zuen. Autoa konpondu zuen enpresako arduradunak eta kontsumo bulegoko adituek adierazi zuten ez dela batere ohikoa biela hondatzea. Arrazoi hori aintzat hartu, eta Castelloko Epaitegiak nabarmendu zuen garrantzi handiko matxura dela motorra hondatzea, eta, beraz, kontratua ez betetzea egotzi zion, nahiz eta saltzaileak argudiatu zuen bezeroak oker edo modu bortxatuan gidatu zuela autoa (ez zuen aurkeztu horren frogarik). //

ZORDUNEN ERREGISTROA

Kalte moralak

Hutsegite baten ondorioz, bankuak zordunen zerrenda batean jarri du bezeroa

Kontu korrante baten jabeari txartel bidez egindako erosketa baten dirua kendu zioten kontutik 2000. urtean, oker kendu ere, kopuru hura eta erosketa hura ez baitzetozen bat berak egindakoekin. Kontsumitzaileen bulegoak erreklamazioa aurkeztu zuen telefonoz eta idatziz, bai Bezeroaren Babeslearen bulegoan eta bai Espainiako Bankuan, eta salaketa ere jarri zuen polizia etxean. 2000. urteko ekainean hasi ziren erreklamazioak egiten, eta 2001. urteko apiril arte luzatu ziren. Tarte horretan, finantza erakundeak behin eta berriz eskatu zion bezeroari ordain zezala diru hori, interesak eta gastuak barne, eta zordunen bi zerrendatan argitaratu zituen haren datu pertsonalak eta zenbat diru zor zuen. Bezeroak salaketa jarri zuen bankuaren aurka, auzitara iritsi ziren eta irabazi egin zuen. Kalte moralak eragiteagatik 1.800 euroko zigorra ordaindu behar izan zuen bankuak. Hauxe dio Espainiako Auzitegi Gorenaren epaia (2009ko apirilaren 24koa da): pertsona bat zordunen zerrenda okerreko batean jarrita, haren ohore-eskubidea legez kontra urratzen da, eta horrek kalte egiten dio pertsonaren duintasunari eta haren izen onari. //



ANTZEKO AUZIETAN ERABAKIAK ETA EPAIAK DESBERDINAK IZAN DAITEZKE

Gure atal honetan auzitegiak emandako epaia jasotzen ditugu. Edukiari begiratu diogu eta era guztietako zerbitzu eta produktuen kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat erabilgarri izan daitezkeen aukeratu. Baina ezin da ahaztu, antzeko gertaeren aurrean erabakiak desberdinak izan daitezkeela. Kontuan izan behar dira, besteak beste, eskura dauden frogak, alderdi bakoitzaren egoera eta epaia ematen duen tribunala.

HIGIEZIN ENPRESAK

Esklusibotasuna eskatzen zaio bezeroari

Higiezin batek etxejabe bat salatu du, beste higiezin baten bitartez saltzeagatik

Etxejabe batek salgai jarri zuen pisua hainbat higiezinetan; horietako baten bitartez saldu zuen, eta zegokion dirua ordaindu zion. Baina beste higiezin batek jakinarazi zuen berak eman ziola informazioa erosleari, eta bezeroak kontratu bidez onartu zuela higiezin horren bitartez soilik salduko zuela etxea. Epaiketan, bezeroak argudiatu zuen gehiegizkoa zela mandatu-kontratua, eta ez zegoela batere argi higiezin bakar horri aitortu ziola salmenta egiteko eskubidea. Bartzelonako Auzitegiak 2009ko otsailaren 3an argitaratu zuen epaia: etxejabearekin bat egin zuen, eta higiezinak eskatzen zuena bete beharrik ez zeukala jakinarazi zuen. Klausula nahasgarria zela adierazi zuen, ez zuela berariaz esaten bi aldean artean hitzartua geratu zela salmenta higiezin hark soilik egin zezala, eta, gainera, desoreka bat sortzen zuela bi aldean artean, bezeroari ordaintzeko beharra ezartzen baitzion etxea saltzen ez bazen ere. Kode Zibilaren arabera, komisioa jasotzeko eskubidea ez da hasten, harik eta mandatariak bukatzen ez dituen arte kontratuan hitzartu dituzten zeregin guztiak. //